

SEMANTIKA

‘Ezetsi’ eta ‘gaitzetsi’ aditzen arteko ezberdintasunari buruz galdetu zidan lagun batek, Elkarrik sinonimoen arteko ñabardura inexistenteak sortzeari eta anbiguotasun deliberatuaren praktika sistematikoari ekin zion garai haietan. Jende gehiagok irentsi zuen gaztelaniazko ‘reprobar’ eta ‘condenar’-en arteko ezberdintasun hutsala. Ez nago ziur baina lehenagokoa dela uste dut ‘autodeterminazioa’ euskaldunok egunero egiten genuen zerbait zelako aurkikuntza jeniala. Azkenaldian ‘Euskadi’ eta ‘Euskal Herria’ terminoek denotazio ezberdina balute bezala hitzegiten digute. Aspaldi genekien ‘Pays Basque’ eta ‘País Vasco’ ez zirela bata bestearen itzulpen egoki.

Orereta ez da Erreterria, eta herri baten ‘independentziak’ ez du ‘estatua’ esan nahi, ‘burujabetza’ baizik (eta honek berriz ‘bakea’). Mehatxuak direla-eta Euskal Herria (edo Euskadi, edo Pays Basque, edo Espainia, edo batek daki) utzi duten unibertsitate-irakasleak dira ‘exiliatuak’; askatasunik gabe bizi direnak ez dira presoak. Ricardo García Danborenea ‘mediku, politiko ohi eta idazleak *logikako* liburua’ idatzi omen du.

Nazio bat gara baina nazioa ez da oraindik jaio, edo eraiki beharra daukagu (arkitekto ta guzti); eta Madrilen ditugu ‘Gobernua’ eta ‘Entzutegi *Nazionala*’. Ertzantza ez da ‘(espainiar) estatuko segurtasun indar’. Zinegotziak ‘Euskal Herriaren zantzetaren arduradun’ dira. ‘Hil’, ‘erail’ eta ‘...zeinaren ondorioz hilik gertatu’ sinonimoak dira sobrare eta ez eufemismo. Atzokoa ‘huelga orokorra’ zen...

‘Arazo semantiko hutsa da’ diote batzuk arazo baten garrantzia gutxietsi nahi dutenean. Aliziarri esan ziotena esan diezagukete guri ere: kontua ez da hitzen esanahia, kontua da nork agintzen duen hemen. Baina ez. Agintzen duena saiatzen da hitzen esanahia nahi bezala aldatzen. Baina ezin du. Eta ezin izango du. Hitzen esanahia hauen eta munduaren arteko erlazioa baita neurri haundi batean. Eta mundua ez du agintzen duenak aldatzen, hala nahi (eta uste) badu ere.